

JARDUKETA IZENA D2 Tarte lehengoratueta sedimentuen mugimenduaren eta ezaugarrien jarraipena egitea

Zer KBetan edo Kontserbazio Bereziko Eremutan dihardugun

Leizaran Ibaia KBE

LOTURA NATURA 2000ekin

Hona zertarako den beharrezkoa jarraipen ekintza hau:

- Oztopo handiak (Truchas Erreka, Inturia eta Oioki) ezabatzeko neurriek sedimentuak garraiatzeko prozesu naturaletan zer ondorio dituzten zehazteko, Leizaran Ibaia KBEan.
- Gauzatzeko dauden ekintzen gauzapena aldatu beharra baloratzeko edo neurri zuzentzaileak hartzeko, habitaten eta espezieen gainean, bai eta hirugarrenen ondasunen edo interesen gainean, ekintzek ondorio kaltegarria izan dezaketelako.
- Aipatu ekintzen irismena zehazteko, bai espazioari dagokionez (tarte ukitua), bai denborari dagokionez (aldaketen oreka edo geldotze puntua), eta era berean, ikusteko zer-nolako eragina duten KBEko habitat eta espezieentzako baldintza egokiak sortzeko, habitaten berezko jarraipenarekin koordinatuta.

KBEko funtsezko elementu onuradunak

Efektu eta prozesu horiek zuzenean daude funtsezko elementu hauekin lotuta:

- Zuzenean KBEa Kudeatzeko Planaren funtsezko elementuontzat da onuragarria: "COD UE91E0* Haltzadiak eta lizardiak", "Ibai Korridore Ekologikoa" eta "*Parachondrostoma miegii* eta komunitate iktikoa oro har".
- Halaber onuragarria izan daiteke Batasunaren intereseko izokin arrunta espeziarentzat (*Salmo salar*). Dokumentatua dago haren pasaera Kantauri itsasotik Leizaran eta Oriá elkartzen diren tokiraino (irradi-jarraipena 2008an), eta espeziea berriz sartzeko plana abian da.

JARDUKETA LEKUA ETA UDALERRIAK:

Leizaran Ibaia KBE osoa

Data

2016-2020

Aurrekontua

50.000 €

Proiektuaren ekintza loturikoak (jarraipenak)

Honatz loturiko kontserbazio ekintzak: nola halako munta duten presa edo presa txiki gaindiezinak Leizaran ibaian kentzea proposatzen duten ekintzak. Zehazki (gorantz goazela Oriarekin elkartzen denetik): "C2 Truchas Erreka", "C3 Inturia" eta "C4 Oioki".

Lanaren deskribapena - HELBURUAK

Jarraipen ekintza honen helburua da proiektuko ekintzek ustez ukituko dituzten tarteetako sedimentuen garraioaren eta ezaugarrien bilakaera ebaluatzea.

Lanaren deskribapena - AURREKARIAK

Leizaran ibaiaren behealdean ur emaria eta kalitatea neurtzeko estazio bat dago. Estazio horretan, ibaiaren emaria eta maila neurtzeaz gain, badira uhertasuna eta urak esekita dakartzan solidoak neurtzeko zundak; gainera, ibaiko uraren laginak automatikoki hartzeko gailu bat ezarria dago; prest dago laginak ponpaketa bidez hartzeko, uhertasuna halako balio jakin batera iristen denean; era berean, gailu bat dago, esekita dauden sedimentuen laginketa integratua egiteko, ibaian bertan murgildua dagoena.

Jarduketa batzuen ondorioz, ur bilduko eremuetan metaturiko sedimentuak mugituko dira.

Sedimentu horien frakziorik lodiena (eskura ditugun datuen arabera, ez da ugariena) hondoari eragiteko dinamiken bidez mugiaraziko da; frakziorik meheena, ordea, uretan esekita garraiatuko da; uhaldietan, bereziki. Halaber, uhaldietan mugitzen dira arroan dauden kutsagarri nabarmenenak, sedimentu-frakzioarekin lotzen direnak.

Bazkideek berrikitan izan dute esperientzia Leitzaran ibaian bertan eta beste esparru batzuetan, dela holako aldaketak eragiten dituzten jarduketak egitean (Inturiako presaren eraispen partziala eta munta txikiagoko beste oztopo batzuen eraispena), dela aipatu aldaketen jarraipenean.

Aipatu esperientzietan, sedimentazio-dinamikaren bilakaera dokumentatu da, eta era berean, ondorioak atera dira aldaketaren norainokoaz eta abiaduraz; ondorio horiek oso erabilgarriak izan dira beste lehengoratzeko lan batzuk diseinatzeke; aurreikusitako ekintzak diseinatzeke, adibidez. Jarraipen horien emaitzak bereziki izan dira erabilgarriak honakoak zehazteko:

- Uhartasunaren eta zunden bidez neurtutako solido esekien balioak lagin bakoitzean jasotako balio errealekin duen korrelazioa, arroak garraiatutako sedimentu kopuruaren kurba jarraitua lortze aldera. Horrela jakin daiteke zer-nolako eragina duten presen eraispenek sedimentuen garraioan.

- Partikula solidoen loturiko kutsagarriren bat ote dagoen.

Bi informazio-lerroak lotuta daude ibaiako habitaten eta espezieen gaineko eraginen aurreikuspenarekin, eta horren ondorioz, lotuta daude jarduketak faseetan zatiturik egiteko erabakiekin, bai eta jarduketan muntarekin ere.

Lanaren deskribapena – AURREIKUSITAKO LANAK/JARRAIPENEN DESKRIBAPENA

Jarraipena eginen da aurrekariaren atalean aipaturiko gailuen bidez eskuratzen diren datuekin (gailuak: neurtegia eta kalitatearen estazioa, laginak hartzea, laginketa integraturako gailua), eta horien osagarri, halaber, noizbehinka hondoan laginketak eginen dira ibaiako 4 tarte adierazgarritan, betiere aurreikusitako jarduketa nagusietan kokatuak.

Datuokin, bai eta bakoitzaren serie historikoekin ere, honako emaitza hauek lortzea planteatu da:

- Sedimentu esekiak Leitzaran ibaiaren arrotik garraiatzea.

- Sedimentuen dinamika uhaldietan, eta dinamika haien ezaugarriak. Arreta berezia jarriko da partikula solidoen loturiko kutsagarriren bat ote dagoen.

Jarraipenaren **denborazko banaketari** dagokionez, planteamenduak oinarri du alderatzea hasierako egoera edo lanen aurrekoa eta bukaerako egoera edo lanen ondokoa, lan edo fase bakoitzerako.

Planteatu diren beste jarraipen batzuekin gertatzen den bezala, badaude eskura Inturiako presa eraisteko lehen bi faseen aurreko eta ondoko egoera zehaztean sortutako datuak (hautagaitza honetan proposaturiko proiektutik kanpo). Jarraipen mota horri datzekion arro-ikuspegiak eraginda, **ugaria** da aurreikusitako ekintzen **aurreiazko informazioa**, Oioki inguruan eginen diren noizbehinkako azterketekin osatuko dena (laginketa partikularrik ez duen bakarra da).

Ondoren, **urtean behingo jarraipenak** eginen dira, eta koordinatuko dira jarduketa guztiekin eta jarduketan fase aurreikusiekin, ahalegin handiagoa egiteko jarduketan ondo-ondoko uneetan, aldaketak dinamikoagoak direnean.

Azkenik, **bukaerako egoera** zein den zehaztuko da, behin lan guztiak egindakoa eta urte hidrologiko bat iragandakoa, 2020. urtean.

JUSTIFIKAZIOA Zer lortu nahi dugu? – ESPERO DIREN EMAITZAK

- Oztopo handiak (C2, C3 eta C4) ezabatzeko neurriek sedimentuak garraiatzeko prozesu naturaletan zer ondorio dituzten jakitea, Leitzaran Ibaia KBEan.

- Hasierako eta bukaerako egoeren gaineko txostenak lortzea (proiektuaren gehigarriak).

